

FUNTSEZKO JARDUERAK

Elkartek arrakasta izateko, ezinbestekoa da guk jarduera zehatz batzuk egitea. Proiektuak emaitza onak izateko ekintza batzuk egin behar ditugu. Beraz funtsezko baliabideetan aipatutako baliabide intelektualen arabera, bakoitzak zer ekintza burutuko dituen adieraziko dugu gure enpresak arrakasta izan dezan.

Hasteko, ekintza garrantzitsuena gure erabiltzaleekin harremana izango da, hau da, nerabeekin erlazio ona edukitzea. Haien konfiantza osoa lortzeko, haiekin hitz egiten orduak eman beharko ditugu eta horrela, gurekin pixkanaka-pixkanaka erosoago sentiaraziko dira. Horrez gain, jolasak egingo ditugu denon artean dibertitzeko eta gehiago ezagutzeko. Jarduera hauek egiterakoan, pixkanaka sentimentuak gehiago azalarazten joango dira eta guk gehiago laguntzeko aukera izango dugu; izan ere, gure helburu nagusia da. Hau egiteaz, bereziki, Ane, Enaitz eta Oier arduratuko dira, hala ere, Ane psikologia lanean gehiago zentratuko da.



Beste alde batetik, batez ere hasieran, publizitate asko egitea garrantzitsua izango da, nerabe eta gurasoek gure berri izateko. Horretarako, hainbat komunikabide erabiliko ditugu, esate baterako, Instagram, Twitter eta Facebook. Horrez gain, gure webgunean ere informazioa jarriko dugu eta gure elkarteari buruzko albisteak eguneratzen joango gara. Familiaren batek sare sozialik ez balu, kalean zehar, hainbat herrietan, kartel batzuk jarriko genituzke. Horrela, gure erabiltzaileak, gure elkartera etortzea sustatuko dugu. Beraz lan hau egiteaz Maren arduratuko da, enpresaren onurak eta ezaugarriak jakinaraziko ditu, horrela, audientziarengan interesa handia eta markaren irudi positiboa sortuz.

Gure enpresaren funtzionamendu ona bermatzeko beste funtsezko jardueratako bat lokala txukun eta antolatuta mantentzea izango da. Egunero, erabiltzaileak etorri baino lehen, gauza bakoitza bere tokian eta garbi dagoela bermatzea Leire arduratuko da. Lan hau, besteak bezain garrantzitsua izango da; izan ere, gure zerbitzua nerabeentzat erabilgarria izateko, lehen pausua eroso sentitzea da, beraz gure lokalak itxura ona edukitzea beharrezkoa izango da.

Azkenik, diru-kontuak ondo antolatuta edukitzea funtsezkoa izango da, horregatik Leirek finantzak eramateaz arduratuko da. Enpresa bat ondo funtzionatzen ari dela egiaztatzeko beharrezkoa da diru-sarrerak eta kostuak zenbatekoak izango diren kalkulatzeko. Horrez gain, Donostiako udalarekin harremana mantentzea garrantzia handia du elkartearen gastuak finantzatzeko eta bakoitzari diru-kopuru bat emateko.

